

MAGALIREN KANTUA.

¡Oh nere biotzeko Magali maitea!
Irten zaitez leiora, agertu zaitea
Nere damboliñ eta chisturen airea
Eguna argitu beziñ laster aditzea.

Ezinkotaala izar daude zerupean,
Aizerik gosoenak lo bete betean;
Izarrak ¡oh Magali! zu ikusitzean
Orituko dirade guziak batean.

—Basoan aditzen dan orrien soñua
Diña neretzako ez da zure kantua;
Baga urdiñetara itsasora nua,
Aingira itzultzero, an nere burua.

—¡Oh Magali! ona zer dizudan esaten,
Baldin itsas arraia bazera biurtzen,
Erraz arrapatuko zaitudala: zeren
Bereala arrantzale ni egingo naizen.

—Bada arrantzale baldin egiten bazera.
Eta botatzen zure sareak urera,
Ni, egazti egiñik, batetik bestera
Ibilliko naiz egaan ara ta onera.

Egiten bazerade ¡oh nere Magali!
Airean ibilli oi diraden egazti,
Arrapatuko zaitut, zerengatikan ni
Abian izango naiz chori-arrapari.

—Paratzen badituzu chori-arte asko
Eper, erruntariak arrapatutzeko,
Belar loretsuan naiz oso biurtuko
Eta zelaian nere burua gordeko.

—¡Nere Magali! baldin itzultzen bazera
Zelaletako perla edo pichilora,
Egingo naiz mancharen piska gabeko ura
Erregatuko zaitut emendik aurrera.

—Zu biurten bazera ur garbi garbian,
Itzuliko naitzu ni odeitzar aundian,
Eta orrela nazu ikusiko airian
Indietara iges egiten abian.

—Nai baldin badituzu ¡oh nere Magali!
Urrutietan dauden Indiak ikusi,
Itsas ipar-aizean itzuliko naiz ni:
Eramango zaitut, bai, naiz egon urruti.

—Itsas-ipar aize zu egiñagatikan
Itsuli egingo det nik zuregandikan;
Egiaz ikusiko nazu oraindikan
Eguzkiren erraño mea egiñikan.

—¡Oh nere Magalicho! enzun egidazu,
Eguzkiren erraño baldin bazera zu
Musker berde berdea ni egingo naitzu:
Edango zaitudala zer duda ez dezu.

—Sasi tartean bere burua gordetzen,
Duen muskerra baldin bazera itzultzen,
Ikusiko nazu ni illargi biurtzen,
Choragarrien argi-zuzia egiten.

—¡Oh Magali Magali! baldin bazaitut nik
Ikusitzen illargi garbi bat egiñik,
Zillarrezko lañoan dena mudaturik
Ingurutuko zaitut, cherkoan arturik

- Lañoz uste banazu cherkoan artzea,
Ez naiz orregatikan izango zurea;
Zabaldurik arantze tartean gordea
Izango naiz larrosa mancharik gabea.

—¡Oh nere biotzeko Magali polita!
Izan eskeroztik zu larrosa galanta,
Egiñik ikusiko nazu micheleta;
Laztan emango dizut besotan bilduta.

—¡Nere maitea! laster, lasterregín zazu,
Irichiko nazula zer pensa ez dezu;
An.... oian itzaltsuan ikus nai banazu,
Aritz itzulirikan arkituko nazu.

—¡Oh Magali maitea! zu ikusitzean
Zeradela biurtzen arbola tristean,
Itzuliko naitzu ni unts mordo batean;
Besarkatuko zaitut inguru danean.

—Estutu nai banazu bada besoakin
Arkituko zerade tronko bakarrakin;
Egiñikan monjacho belo churiakin
Sartuko naiz San Blasko komentuan ariñ.

—Baldin basoaz monja churi egitera

Eta komentuan ¡oh Magali! sartzera,
Zure konpesore ni noa izatera;
Esaten didazuna goiso aditzera.

—Komentuan sartutzen baldin bazera zu,
Kantu triste tristeak enzungo dituzu,
Monjaz ingurutua, sinistu nazazu,
Eta ill jazkaiakin arkituko nazu.

—¡Oh nere biotzeko Magali kutuna!
Zu bazera gorputz bat illotzik datzana,
Lurra izango naiz ni, lur bigun biguna;
Menperatuko zaitut ¡ai errukiena!

—Orainchen asitzen naiz oso sinistutzen,
Ziñéz edo benetan zerala mintzatzen;
Ar-zazu ¡oh galaia! oroitu zaitezen,
Kristalezko erraztun au dizut eskeintzen.

—¡Oh Magali maitea! doaiñ onengatik,
Esker ematen dizut biotz biotzetik;
Begiratu izarra begiak alcharik,
Zu ikustean para dira oriturik.

CLAUDIO DE OTAEGUI.

I.^{ko} MUTADI EDO ISITZA.



zi
zi



Askantza urrengo lumero edo liburuchuan.